

Ekainak 20, Errefuxiatuen Munduko Eguna

Gurutze Gorriak 1.122 errefuxiatu artatu zituen euskadin 2021ean

- Gurutze Gorriak bat egin du Errefuxiatuen Munduko Eguna ospatzearekin, gizarteari egiten dioten ekarpena aitortzeko eta ihes egiten dutenen eta harrera egiten dutenen artean zubiak eraikitzeko.
- Iaz Gurutze Gorriak 1.122 pertsona artatu ditu Euskadin; horietatik % 66 gizonak dira eta %44 emakumeak.

2022ko ekainaren 17a. Egunero, milaka pertsonak ihes egiten dute beren herrialdetik. Askotan, **beldurrak bultzatuta, eta beste batzuetan, herrialde berri batean bizimodu hobea aurkitzeko itxaropenak bultzatuta**, nahiz eta familietatik eta jatorrizko hiritik urrun egon.

Gurutze Gorriak **30 urte baino gehiago** daramatza nazioarteko babesa, aldi baterako babesa eta/edo aberri gabeko estatutua eskatzen eta jasotzen duten pertsonen laguntza integrala eta diziplina anitzekoa emateko estatuko sisteman. **Euskadin**, gaur egun, **aldi baterako harrerako 38 baliabide kudeatzen ditu**: 13 Araban, 12 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan, guztira **200 plaza betez**: 62 Araban, 68 Bizkaian eta 70 Gipuzkoan, Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioak finantzatuta.

Gainera, Gurutze Gorria Eusko Jaurlaritzaren buru duen erakunde arteko gizarte-mahaiko kide da, Euskadin asilo-eskatzzaileak gizarteratzeko prozesua hobetzeko.

Gurutze Gorriak Euskadin nazioarteko babesaren eskatzzaile eta onuradunentzako Harrera eta Integrazio Programan artatutako pertsonen kopurua aldatu egin da azken urteotan. 2019an 1.256 pertsona artatu ziren. 2020an, 1.184 pertsona eta **2021ean, guztira, 1.122 pertsona artatu zituen erakundeak (264 pertsona Araban, 462 Bizkaian eta 396 Gipuzkoan)**. Gurutze Gorriak artatutako errefuxiatuen artean nazionalitate ohikoenak venezuelarra, afganiarra eta maliarra dira, eta horiei ukrainarra gehitu zaie.

Gurutze Gorriak nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonekin egiten duen esku-hartzearen helburua haien babesa eta gizarteratzea bermatzea da. Programak hainbat fase ditu, lehenengo harreratik autonomiarako prestaketa-fasera bitartekoak, 18 eta 24 hilabete bitartekoak. Denbora horretan, arreta integrala eta indibidualizatua ematen da, eta, besteak beste, honako zerbitzu hauek eskaintzen dira: lehen harrera,aldi baterako harrera, laguntza legala eta psikologikoa, familia berrelkartzea, hizkuntza ikastea eta itzulpengintza eta interpretazioa, edo enplegua bilatzeko gaitasun profesionala aktibatzea, orientatzea eta hobetzea.

Bestalde, Gurutze Gorriak, www.migrar.org atariaren bidez, migratzaileentzako informazio interesgarria eskaintzen du bere buletin elektronikoaren eta sare sozialen bidez, haien gizarteratzea, lanekoa eta kulturala erabat errazteko.

Errefuxiatuen Munduko Eguna

Errefuxiatuen Munduko Eguna ospatzeko, Gurutze Gorriak hainbat jarduera antolatu ditu **ekainaren 20rako**, astelehena, hiru euskal hiriburuetan.

Gasteizen 9: 00etatik 13: 30era egongo da Loma Jeneralaren plazan, eta honako jarduera hauek egingo dituzte:

- **Hitzaren zuhaitza:** belaunaldien arteko eta kulturen arteko jarduera bat da. Bertan, adineko pertsonen programan parte hartzen duten pertsonak Espainian edo Espainiatik kanpo duten migrazio-prozesuaren berri emango dute, eta esperientziak partekatuko dituzte gaur egun migrazio-prozesua egiten ari diren pertsonekin.
- **Errealitate birtualeko betaurrekoak**, gerra baten ondorioz ihes egitearen errealitatea lehen pertsonan bizitzeko.
- Errefuxiatuen programako parte-hartzaileen eta gaztelaniazko klaseetara joaten diren ukrainarren kontakizunen eta **argazkien erakusketa/lehiaketa**.

Gipuzkoan, astean zehar hainbat jarduera antolatu dira, eta ekainaren 20an, astelehenean, 11:00etatik 18:00etara, Arrasateko Monterron parkean egingo den errefuxiatuen eguneko festa ospatuko da. Bestalde, ekainaren 21ean, asteartean, futbol txapelketa izango da Arrasateko Iturripe zelaian.

Bizkaian, datorren astelehenean, ekainak 20, Gurutze Gorriak Bilbon duen probintzia-egoitzan (Jose Maria Olabarri Kalea 6), 12:30ean, munduko te topaketa bat egingo da,

erakundearen erabiltzaileen artean dinamika parte-hartzaileak garatu eta sentsibilizatzeko.

Álvaro García Serrano

Marka eta Komunikazio autonomikoaren arduraduna

| +34 678 401 443

| comunicacionalava@cruzroja.es

| **Euskadi.** Portal de Castilla, 52. 01007 Vitoria–Gasteiz.

Gure idazkerak gure pentsamoldea islatzen du. Gurutze Gorria hizkuntza inklusiboaren alde.